



Azalpen txostena, Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentuaren aurrekontuak indarrean dagoen aurrekontuarekin alderatuta dituen desberdintasun nagusiei eta aurrekontuak prestatzean erabilitako irizpideei buruzkoa.

Gipuzkoako Foru Aldundiak azken urteotan bizkortu egin du zaintza pertsonalizuagoak, inklusiboagoak eta komunitarioagoak lortzeko trantsizio-prozesua. Ildo horren apostu sendo bat eginez Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentuak zuzendaritza nagusi berri bat du: 2030 Agendaren, berrikuntzaren eta ebaluazioaren Zuzendaritza Nagusia. eta bere egitekoa izango da Gipuzkoa 20 > 30 Agendaren "Trantsizioko Gizarte Politikak" 2024 Ekintza Plana bultzatzea eta gainbegiratzea.

Agenda Gipuzkoa 20 > 30 gida estrategikoa da, hurrengo 10 urteetarako arreta-, zaintza- eta laguntza-ereduaren aldaketa inkrementalerako. Gipuzkoako gizarte-politika guztietarako arreta- eta zaintza-ereduaren eraldaketa sakona proposatzen du, kontuan hartuta lurraldearen erronka handienetako bat trantsizio demografikoarekin lotuta dagoela. Gizarte-zerbitzuen sistema eraldatzeko prozesu hori eraginkor bihurtzeko, 12 trantsizio-ardatzez eta gizarte-politikako 39 jarduketaz osatutako Ekintza Plan bat proposatzen da. 2025. urtean, aipatutako jarduerak garatzeko aurreikusitako ekintza batzuk gauzatzen hasiko dira.

Era berean 2025eko urtean, Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen 2024-2030 Mapa berria ere abiaraziko da, 2024an onartu ondoren, Mapa hori Departamentuak eman behar dituen zerbitzuen estaldura integralerako dokumentu zuzentzailea da, eta eskualde, zerbitzu eta arreta-kolektiboen arabera plaza berriak irekitzeko kopurua eta kokapena zehazten ditu. Sistemaren estaldura eta iraunkortasuna uztartzea da Departamentuak aurre egin beharreko erronka handienetako bat.

2025erako beste erronka bat zerbitzuen egungo hornikuntza-sistemak egokitzea da. Izan ere, 2023ko azaroan jarri zen indarrean azaroaren 7ko 168/2023 Dekretua, zeinaren xedea baita Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazio eta zerbitzuen katalogoko zerbitzuak ituntzeko araubide orokor eta erkide bat arautzea. Dekretu horrek Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea osatzen du, eta aldaketa handia dakar, definizio handiagoa behar zuten artikulak garatzen baititu.

Informe explicativo de las diferencias más significativas que presenta el presupuesto del Departamento de Cuidados y Políticas Sociales respecto al vigente y criterios adoptados en su elaboración.

La Diputación Foral de Gipuzkoa ha acelerado en los últimos años el proceso de transición hacia unos cuidados más personalizados, inclusivos y comunitarios. Apostando de forma decidida por esta línea, en esta nueva legislatura el Departamento de Cuidados y Políticas Sociales. ha incorporado la Dirección General de Agenda 2030, innovación y evaluación, que tiene como misión impulsar desarrollar y supervisar el despliegue durante el 2025 de la Agenda Gipuzkoa 20 > 30 "Políticas Sociales de Transición".

La Agenda Gipuzkoa 20 > 30 es una guía estratégica para el cambio incremental del modelo de atención, cuidados y apoyos para los próximos 10 años. Propone una transformación profunda del modelo de atención y cuidados para el conjunto de las políticas sociales de Gipuzkoa, tomando en cuenta que uno de los mayores desafíos del Territorio está relacionado con la transición demográfica. Para hacer operativo este proceso de transformación del sistema de servicios sociales, se propone un Plan de Acción integrado por 12 ejes de transición y 40 actuaciones de política social. En el ejercicio 2025 se comenzarán a ejecutar algunas de las acciones previstas para desarrollar las citadas actuaciones.

En 2025 también se iniciará el despliegue del recientemente aprobado el nuevo Mapa de Servicios Sociales de Gipuzkoa 2024-2030, que es el documento director para la cobertura integral de los servicios que debe proveer el Departamento y que marca el número y ubicación para la apertura de nuevas plazas por comarcas, servicios y colectivos de atención. Combinar crecimiento de la cobertura y sostenibilidad del sistema es uno de los mayores retos que afronta el Departamento.

Otro de los retos para 2025 es la adaptación de los sistemas de provisión actuales de servicios. Ello se debe a que en noviembre de 2023 entró en vigor el Decreto 168/2023, de 7 de noviembre, cuyo objeto es regular un régimen general y común para la concertación de los servicios del catálogo de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales. Este decreto, complementa la Ley 12/2008 de 5 de diciembre de Servicios Sociales, y supone un gran cambio, al desarrollar artículos, que precisaban de una mayor definición.



Hala ere, ematen diren zerbitzu eta programen izaera dela eta, ezin direla eten, erabiltzaileek eskubide subjektiboa dutelako jada, eta haien tutoretza, are jurisdikzionala ere, eska dezaketelako, departamentua behartuta dago dauden prozedurekin jarraitzera, harik eta esparru juridiko berria ezartzen hasteko gai izan arte.

Egoera berri horren aurrean, Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentuak, lantalde bat eratu du, Idazkaritza Teknikoko, eraginpeko Zerbitzuetako eta Ogasun eta Finantza Departamentuko Kontuhartzaitza eta Auditoretza Zerbitzuko ordezkariekin. Helburua da jarduteko protokolo bat ezartzea, dauden eta etorkizunean emango diren zerbitzu eta programen erregulazioa esparru juridiko berrira egokitzeko prozedurak eta epeak pixkanaka barne hartuko dituena.

2025eko aurrekontu-ekitaldiko jarduketa berriei buruzko informazioa emateko, jarraian deskribatzen dira esanguratsuenak, aurrekontu-programen arabera sailkatuta:

2030 Agenda, berrikuntza eta ebaluazioa, 100 programak daramatza 2025eko aurrekontuan, ebaluazio-agentzia bat sortzeko ahalbidetuko duten kredituak, esku-hartzeen eraginkortasuna neurtzeko zerbitzuen kalitatea ziurtatzeko, ebaluazio- eta jarraipen-mekanismoak hobetzeko eta, horrela, lurraldeko baliabideetan egiten diren ikuskapenak osatzeko, hala nola adinekoen eta adingabeen zentroetan, inklusioan, indarkeria matxistaren biktimetan, desgaitasunetan edo eguneko zentroetan, besteak beste.

Gainera, 2025erako, programa honek bere gain hartzen ditu departamentuaren egiturari buruzko foru-dekretu berriak esleitzen dizkion jarduketa-kredituak:

- Gizarte-ekimeneko planeko laguntzak.
- Jarduketak Gipuzkoako boluntariotzan
- Berrikuntzarako eta tokiko ekosistemarako laguntzak
- Departamentuaren azpiegitura informatikoa koordinatzea

Sin embargo, dado que la naturaleza de los servicios y programas que se prestan hace que no puedan ser interrumpidos, puesto que las personas usuarias ya tienen derecho subjetivo y pueden solicitar su tutela incluso jurisdiccional, el departamento se ve obligado a continuar con los procedimientos existentes, hasta ser capaces de comenzar a implementar el nuevo marco jurídico.

Ante este nuevo escenario el departamento de Cuidados y Políticas Sociales ha constituido un grupo de trabajo con representantes de la Secretaría Técnica, de los Servicios afectados y del Servicio de Intervención y Auditorías del Departamento de Hacienda y Finanzas. Su objetivo es marcar un protocolo de actuación que incluya procedimientos y plazos para la adecuación gradual de la regulación de la prestación de los servicios y programas, existentes y futuros, al nuevo marco jurídico.

Para facilitar la información referida a las nuevas actuaciones del ejercicio presupuestario 2025, se describen a continuación las más significativas clasificadas de acuerdo con sus programas presupuestarios:

El programa 100 de Agenda 2030, innovación y evaluación, incluye en el presupuesto 2025 los créditos que permitirán diseñar y crear una agencia de evaluación que certifique la calidad de los servicios para medir la eficacia de las intervenciones, mejorando los mecanismos de evaluación y seguimiento y complementará así las inspecciones que ya se llevan a cabo en los diferentes recursos del territorio, tanto en centros de mayores como de menores, inclusión, víctimas de violencia machista, discapacidad o centros de día, entre otros.

Además, para 2025 este programa asume los créditos presupuestarios de actuaciones que el nuevo Decreto Foral de estructura del departamento le atribuye:

- Las Ayudas del Plan de Iniciativa social.
- Actuaciones en el voluntariado en Gipuzkoa
- Ayudas de innovación y ecosistemas locales
- La coordinación de la infraestructura informática del Departamento.



Desgaitasuna duten pertsonen arreta emateari dagokionez, (200 programa) beste urte batez nabarmendu da, jarduera ugari eta askotarikoak aurreikusten direlako. Horregatik, haren 2025eko zuzkiduran beharrezko kredituak sartzen dira honako hauek jarduerak indartzeko:

- Plazak gehitzea eta zerbitzu-egunak luzatzea. Gasto horrek barne hartzen du 2024an sortutako plazen gastua urtekotzeko aurreikusitakoa, 2025eko ekitaldian sortu beharreko plaza berriena, eta eraldatzen diren egungo plazen gastua, eguneko arretako baliabideetan zerbitzu-egunen kopurua handituz.
- Arreta goiztiarra behar duten lurraldeko haurrei. Zerbitzua arautzeko 2023an foru-dekretu berri bat onartu ondoren, Itun sozialaren araubideari buruzko Dekretua indarrean jartzeak atzeratu egin du hura betetzeko deialdi publiko baten onarpena; izan ere, esan bezala, dekretu horren xedapenetara egokitu behar dira. 2025ean deialdi bat izapidetuko da, zerbitzua eman nahi duten eta bertan ezarriko diren baldintzak betetzen dituzten erakundeek bete dezaten. Hornidura horrek orekatua izan beharko du, eta eskualdeka hurbileko sarbidea bermatu beharko du, zerbitzuaren kalitatea bermatuz. Horrekin guztiarekin batera, partida horien zuzkidura handituko da, pertsona gehiagorengana iristeko eta zerbitzuan sartzen direnei arreta hobea emateko.

Bestalde, Mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonentzako arretari dagokionez (210. programa), 2025. urtean ere plaza berriak sortzeko apustua egingo da, hainbat zerbitzu eskuratzeko itxarote-denbora murrizteko eta Gizarte Zerbitzuen 2024-2030 Mapak ezartzen dituen estaldura-tasak bermatzeko. Horren aurrekontuan hainbat plaza sortzen dira egoitzazentrotan, unitate psikogeriatrikoetan eta adinekoentzako eguneko zentrotan.

300 Programa 2025ean aldatuko da, aldizkako prestazio ekonomikoen programako kredituak batuz eta Agenda, berrikuntza eta ebaluazioko 100 programara igaro diren jardueren kredituak galduz. Horregatik, izena aldatu du, eta hemendik aurrera izen hau izango du: 300. Programa: Prestazio ekonomikoak, plangintza eta itunak.

En cuanto a la Atención a personas con discapacidad, (programa 200) destaca otro año más, por la gran cantidad y variedad de actuaciones previstas. Por ello, en su dotación 2025 se incluyen los créditos necesarios para reforzar las siguientes actividades:

- Incremento de plazas y ampliación de días de servicio. Este gasto incluye el previsto tanto para anualizar el gasto de las plazas creadas en 2024, el de las nuevas plazas a crear durante el ejercicio 2025, y el de plazas existentes que se transforman, ampliando el número de días de servicio en los recursos de atención diurna.
- Atención temprana a niños y niñas del territorio que la precisen. Tras la aprobación durante 2023 de un nuevo decreto foral para la regulación del servicio, la entrada en vigor del Decreto del régimen de concierto social ha supuesto un retraso en la aprobación de una convocatoria pública para su provisión ya que como se ha dicho, son necesarias adaptaciones a las disposiciones de dicho decreto. Se tramitará una convocatoria en 2025 para la provisión por las entidades interesadas en prestarlo que cumplan los requisitos que se fijarán en la misma. Esta provisión deberá resultar equilibrada y garantizar el acceso cercano por comarcas garantizando la calidad del servicio. Todo ello se verá acompañado de una mayor dotación para llegar a más personas y atender mejor a las que ya acceden al servicio.

Por su parte, en cuanto a la Atención a personas mayores en situación de dependencia, programa 210, en el ejercicio 2025 continuará la apuesta por la creación de nuevas plazas para reducir el tiempo de espera existente para el acceso a diversos servicios y garantizar las tasas de cobertura para el territorio que marca el Mapa de Servicios Sociales 2024-2030. Su presupuesto incluye la creación de distintas plazas en centros residenciales, unidades psicogerítricas y centros de día para personas mayores.

El Programa 300 cambiará en 2025 sumando los créditos del programa de Prestaciones económicas periódicas y perdiendo los de las actuaciones que tras la remodelación de la estructura del departamento han pasado al programa 100 de Agenda, innovación y evaluación. Por ello, cambia de nombre, pasando a llamarse Programa 300: Prestaciones económicas, planificación y concertación.



310 aurrekontu-programaren bidez, departamentuak inbertsioak eraldatu eta egokitzeari ekiten dio. Duela zenbait ekitaldiz geroztik, Zainketetako eta Gizarte Politiketako Departamentuak gizarte-zerbitzuetako zentroetan inbertitzea sustatu du, lurralde osoko premiei erantzungo zien ekipamendu-sare bat sustatzeko, eskualde-banaketa egokiarekin, eta lehendik dauden zentroetan kalitate-estandar zorrotzei eutsiko zitzaizela bermatzeko, bai beren zentroetan inbertituz, bai hitzartutako erakundeen laguntza-planak bultzatuz.

Hala, 2025ean, eraldaketa-prozesu horretan irmo aurrera egiten jarraitzeko, departamentuak Europako Next Generation funtsak izaten jarraituko du, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planetik datozenak. Funts horiek aurrekontuetan sartuta daude eta honako jarduketara hauek amaitzeko aukera emango dituzte:

- Zentro propioak egokitzea, hala nola Lasarteko Atsobakar Egoitza eta zentro berritzaileak indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei, gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonen eta desgaitasuna duten pertsonen arreta emateko arloan.

Era berean, 2025ean hiru zentro berri obren hasiera espero da:

- 1) Irungo egoitza-zentro berria eraikitzea, Irungo Arbes inguruan.
- 2) Egoitza-zentro berri bat Elgoibarren eraikitzea.
- 3) Txara 1eko Egoitza Arreta Espezializatuko Zentroaren birmoldaketa integrala.

Gizarte Inklusioko eta Emakumeen aurkako Indarkeria matxistari arreta emateko 400 Programan, 2025ean, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen arreta emateko zerbitzua indartzea nabarmentzen da. Horretarako, egonaldi luzeko egoitza-zentro bat eta 24 orduko hiru arreta-zerbitzu jarriko dira abian, eta horiek erosi, egokitu eta ekipatzeko, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planeko dirulaguntza baten funtsak erabili dira. 24 orduko arreta-zerbitzuen artean, nagusia Donostian kokatuko da, eta beste biak Debagoienan eta Goierri, hurrenez hurren.

A través del Programa presupuestario 310, el departamento aborda la transformación y adecuación de inversiones en centros sociales. Desde hace varios ejercicios el Departamento de Cuidados y Políticas Sociales, ha venido fomentando la inversión en centros de servicios sociales como forma de impulsar la existencia de una red de equipamientos que respondiese a las necesidades del conjunto del territorio, con adecuada distribución comarcal y que asegurase el mantenimiento de unos exigentes estándares de calidad en los centros ya existentes, tanto a través de la inversión en sus propios centros como impulsando planes de ayudas económicas para los de las entidades concertadas.

Así en 2025, para seguir avanzando decididamente en este proceso de transformación, el departamento seguirá contando con fondos europeos Next Generation provenientes del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, que se vienen incluyendo en los presupuestos y que permitirán la conclusión de las siguientes actuaciones:

- Adaptación de centros propios como la Residencia Atsobakar de Lasarte y centros innovadores en materias como la atención a mujeres víctimas de la violencia machista, a personas en exclusión social y a personas con discapacidad.

Así mismo, se espera que 2025 sea el año de inicio de las obras de tres centros claves:

- 1) La construcción del nuevo centro residencial de Irún en la zona de Arbes de Irún.
- 2) La construcción de un nuevo centro residencial en Elgoibar.
- 3) La remodelación integral del Centro de Atención Residencial Especializada de Txara 1.

En el Programa 400, de Inclusión social y atención a la violencia machista contra las mujeres, durante 2025 destaca el refuerzo del servicio de atención a mujeres víctimas de la violencia machista con la entrada en servicio de un centro residencial y de tres servicios de atención 24 horas cuya adquisición, adecuación y equipamiento, ha sido financiada con fondos provenientes de una subvención del Plan de Recuperación Transformación y Resiliencia. Entre los servicios de atención de 24 horas, el principal se ubicará en Donostia-San Sebastián y los otros dos en Alto Deba y Goierri, respectivamente.



Haurrak eta nerabeak babesteko 410 programan, Funtsezko mugarría izango da Haur eta Nerabeentzako 2024-2029 aldirako Ekintza Plana garatzen jarraitzea.

Dudarik gabe, 2025eko beste erronka izango da, lurraldera gero eta gehiago iristen diren inoren kargura ez dauden adingabe migratzaileen harrera birdimentsionatu.

Zentroen kudeaketa integraleko 500 Programari dagokionez, nabarmendu behar da 2025ean instalazioak berritzeko eta hobetzeko obrak egiten jarraituko dela, bai Egogain gerontologia-zentroan, bai Kabiak kudeatutako zentroetan, Uliazpi Fundazioak kudeatzen dituenetan.

Zuzendaritza berri horren beste erronka bat izango da berrikuntzako, pertsonalizazioko eta gobernanzako estrategia indartzea, zentroetan iraupen luzeko arreta- eta zaintza-ereduaren ebaluazioa aplikatuz. Estrategia hori "Etorkizuneko egoitzak" izeneko Liburu Berdean zehaztutako palanka eta jarduketaren garapenean oinarritzen da. Liburu horrek Gipuzkoako egoitza-zentroetako adinekoen bizi-kalitatea hobetzeko modua laburbiltzen du.

En el programa 410 de Protección a la infancia y adolescencia, un hito fundamental será continuar con el desarrollo del Plan de Acción para la Infancia y la Adolescencia 2024-2029.

Sin duda, otro de los retos de 2025 será el redimensionamiento de la acogida a personas menores migrantes no acompañadas que llegan al Territorio de manera creciente.

En cuanto al programa 500 de Gestión integral de centros, destacar que durante 2025 se seguirán acometiendo obras de renovación y mejora de las instalaciones tanto en el Centro Gerontológico Egogain como en los centros gestionados por Kabia y por la Fundación Uliazpi

Otro de los retos de esta nueva Dirección será fortalecer la estrategia de innovación, personalización y gobernanza, mediante la aplicación de la evaluación del modelo de atención y cuidados de larga duración en centros. Esta estrategia se basa en el desarrollo de las palancas y actuaciones definidas en el Libro Verde: "Residencias del Futuro" que sintetiza la forma de mejorar la calidad de vida de las personas mayores en centros residenciales de Gipuzkoa.




03 Departamentua ZAINKETETAKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA/

Departamento 03 DEPARTAMENTO DE CUIDADOS Y POLÍTICAS SOCIALES

(Mila eurokotan/Miles de euros)

Programak	LANGILEAREN GASTUAK 1	ONDASUN ETA SERB.OHIKO 2	FINANTZA GASTUAK 3	TRANSFER. ARRUNTAK 4	KONTINGENT. EZUSTEKOAK 5	INBERTSIO ERREALAK 6	KAPITAL TRANSFER. 7	FINANTZA AKTIBOAK 8	FINANTZA PASIBOAK 9	AURREKONTUA GUZTIRA
Programas	GASTOS DE PERSONAL	GTOS.CTES. BIEN.Y SERV	GASTOS FINANCIEROS	TRANSFER. CORRIENTES	CONTINGENC. IMPREVISTOS	INVERSIONES REALES	TRANSFER. DE CAPITAL	ACTIVOS FINANCIEROS	PASIVOS FINANCIEROS	TOTAL PRESUPUESTO
01. Zaintza eta gizarte-politiketako zerbitzu orokorrak/ Servicios generales de cuidados y políticas sociales	1.895,55	1.049,71				50,74				2.995,99
10. Agenda, Berrikuntza eta Ebaluazioa/ Agenda, Innovación y Evaluación	363,93	1.746,63		4.591,34		2.689,82	389,68			9.781,41
20. Desgaituen laguntza/ Atención a personas con discapacidad	2.729,64	9.003,06		61.870,98		420,73	1.605,00			75.629,40
21. Adinekoen laguntza/ Atención a personas mayores	1.244,24	30.438,98		89.415,52						121.098,74
30. Prestazio ekonomikoak, planifikazioa eta itunak/ Prestaciones económicas, planificación y concertaci	2.864,28	249,65		94.393,77						97.507,70
31. Gizarte zerbitzuen zentroetako inbertsioen plana/ Plan de inversiones en centros de servicios sociales	1.420,91	909,80				25.764,60	9.033,40			37.128,71
40. Gizarte Inklusioa eta Indarkeria Matxistaren Emak Inclusión Social y Atención a Mujeres Víctimas de	1.817,92	5.376,00		37.644,86						44.838,78
41. Haur eta nerabeen babesa/ Protección a la infancia y la adolescencia	2.639,09	41.023,24		21.018,80						64.681,13
50. Foru Erakunde Publikoen Kudeaketa/ Gestión de Organismos Públicos Forales	4.659,83	6.627,98		67.808,72			1.877,00			80.973,54
Departamentua Guztira Total Departamento	19.635,39	96.425,04		376.744,00		28.925,88	12.905,08			534.635,39



- 1. LANGILEAREN GASTUAK/GASTOS DE PERSONAL
- 2. ONDASUN ETA SERB.OHIKO/GTOS.CTES. BIEN.Y SERV
- 4. TRANSFER. ARRUNTAK/TRANSFER. CORRIENTES
- 6. INBERTSIO ERREALAK/INVERSIONES REALES
- 7. KAPITAL TRANSFER./TRANSFER. DE CAPITAL